

# ASAJER

## 10. URTEURRENA



ERREABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTE  
ASOCIACION ALAVESA DE JUGADORES EN REHABILITACION  
Tel./Fax: 945 14 04 68 VITORIA - GASTEIZ



Errehabilitazioan dauden Jokalarien Arabako Elkarte (ASAJER) 1989. urtean eratu zen, zorizko jokoek sortutako arazoei, Ludopatia izenez ezagutzen diren horiei, erantzun bat emateko asmoz.

Ugariak izan dira oztopoak eta urria laguntza, gai honen inguruan dagoen problematika osoa gure erantzukizuna bakarrik izango balitz bezala.

Urtez urte ikusi izan dugu Ludopatiak ez duela inolako interes sozialik sortzen, eta honen ondorio zuzena dira, batetik, gai larri honen inguruan sortzen den isiltasun handia, eta bestetik, ludopaten eta bere senitartekoen isolamendua.

Nolanahi ere, ASAJER elkarteak ez du ezkorra izan nahi. Egun, Ludopatiari buruzko informazioa lortzea errazagoa da, eta gainera, gizarteak ez du problematika horren existentzia ukatzen.

Hamarkada honetan, Elkarteak eskarmentu handia hartu du, bai prebentzio-arloan, bai arlo terapeutikoan ere, eta pixkanaka, Ludopatiaren arazoi eta ondorioei buruz duen ezagutza zabaltzen joan da.

Eskarmentu handiagoa eta ezagutza gehiago izateak, gainera, eboluzionarazi egin digu problematika honi erantzuteko moduan. Datu garrantzitsu bat: kaltetuei emandako laguntza eta tratamenduak eskusiboki banakakoa izatetik, hari gehitzen zaizkion talde-egiturak sortzera pasa da. Bestalde, egun errehabilitazioan dauden jokalariei eskainitako laguntza-taldeak ezezik, senitartekoei zuzendutako taldeak ere sortuz joan dira. Hori guztia pentsaezina zen duela urte batzuk.

Eta hori guztia Elkartetik pasa den pertsona guztiek egindako ekarpenari esker, lehenengotik hasi eta azken pertsona arte; hori guztia, bere arazoa konpontzeko gure laguntza onartu duten guztiei esker.

Datuak ezin daitezke adierazgarriagoak izan. 1990 urtetik 1998 urtera bitartean, 2278 pertsona jarri dira harremanetan gurekin telefono bidez, eta 3635 bisita jaso dira. Honek zera esan nahi du: batez beste, 253 dei jaso direla urtero, eta 404 bisita.

Gure ustetan, datu horiek guztiak adierazgarriegiak dira problematika hau gauza isolatutzat hartzeko, eta behingoz dagokion garrantzia ematen hasi behar zaiola uste dugu.

1999 urtea une erabakigarria da ASAJER elkartearentzat, izan ere, aurtan 10 urte betetzen ditu, eta beraz, 10. urteurrena ospatzen dugu.

Badakigu, oraindik ere, lan nekeza eta gaitza dugula egiteke, baina horrek ez gaitu atzera botako. Espero dugu Ludopatia zer den ulertarazteko egindako gure ahalegin eta esfortzuak gizartera helduko direla, eta espero dugu, aurrerantzean, dagokion lekua emango zaiola arazo honi.

**EZ EZAZU ISOLA  
¡IONAR EZAZU!**

# JOKO MENPEKOTASUNAREN PREBENTZIOA (ASAJER)

## LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA

- Jokalari ez direnak.
- Jokalari sozialak.

### HELBURUAK:

- Zorizko jokoen menpekotasunari buruzko Informazioa, Sentsibilizazioa eta Kontzientziaketa.
- ASAJER ezagutzera ematea, Ludopatiaren aurkako berariazko baliabide gisa.

### JARDUERAK:

- Hitzaldiak, kafe-solasaldiak eta bideoforumak.
- Sentsibilizazio eta Informazio astea: "Joko-menpekotasuna, guztion erantzukizuna".
- Bideo-lehiaketa: "Joko-menpekotasuna, errealitatea edo ametsa?".
- Ludopatiari buruzko informazio-jardunaldiak (Langraiz Oka)
- Ludopatiari buruzko informazio-kanpaina. (Amurrio)

### MATERIAL GRAFIKOA ETA DIBULGAZIOZKOA:

- Elkartearen argibide-liburuxka.
- Zorizko jokoei eta bere problematikari buruzko informazio-liburuxkak.
- Elkartearen kartela.
- Elkartearen intsigniak.
- Panel informatiboak.
- Elkartearen aldizkaria.

## BIGARREN MAILAKO PREBENTZIOA

Arrisku-egoeran dauden sektoreak.

### HELBURUAK:

- Ludopatiaren aurrean ahulago diren edo izan daitezkeen sektoreak identifikatzea.
- Txostena: zorizko jokoen erabilera zentzuzkoago edo osasuntsuago bat lortzea eta prebentzio-estrategiak martxan jartzea.

### PREBENTZIO EKINTZAK:

#### EMAKUMEAK:

- Emakumeei zuzendutako prestakuntza- seminarioak.
- Irrati-saioak.
- Hitzaldiak.

#### GAZTEAK:

- Irakasleei zuzenduriko formakuntza- programa.
- Gurasoei zuzendutako prestakuntza-programa.
- "Ezagutzen duzu joko-menpekotasuna?" programa. Gazteen errealitatea ebaluatzeko galdeketa.

## HIRUGARREN MAILAKO PREBENTZIOA

- Jokalari arazodunak eta jokoaren menpe daudenak.
- Bikotea, familia...

### HELBURUAK:

- Informazioa, orientazioa eta laguntza ematea edozein pertsona kalteturi, nahiz jokoarekin arazoa izan, nahiz menpekotasuna izan; baita familia, bikote edota lagunei ere.
- Joko-menpekotasuna gainditzeko tratamendua.

### JARDUERAK:

- Telefono bidezko harrera.
- Harrera pertsonala.
- Banakako terapia.
- Familia edo bikoteko terapia.
- Kaltetuentzako sostengu-taldea.
- Senitartekoen taldeak.

### GIZA BALIABIDEAK:

- 2 PSIKOLOGO.

## DATU EPIDEMIOLOGIKOAK

- Eragin Tasa herritar nagusien % 2 eta % 3 bitartean dago. (Allcock, 1986; Volberg eta Steadman, 1988; APA, 1994; Legarda, Babio eta Abreu, 1992).
- Klase sozial guztietan eta adin guztietan ematen da.
- Sexuaren arabera banatuz gero, bi gizonetako dago emakume bakoitzeko. (% 30 - % 40/ % 60 - % 70).
- Jokoan hasten direnen adina jaitsi egin da azken urteotan, eta geroz eta gehiago dira jokoarekin arazoak dituztelako kontsultara doazen gaztetxoak (Baez eta Echeburua, 1995).
- Ludopaten ia % 40-ak 18 eta 30 urte bitartean dituzte.

## ZORIZKO JOKOETAN EGINDAKO GASTUA

- Jokoaren Batzorde Nazionalaren datuen arabera, 1997 urtean, espainiarrek 3,4 bilioi gastatu dituzte zorizko jokoetan, 1996 urtean baino ia % 6 gehiago.
- EAEn, gastu hori 164.463 milioitakoa izan da, alegia, erkidegoko herritar bakoitzak, batez beste, 77.000 pezetako gastua egiten du zorizko jokoetan.
- EAE, Estatu Espainiarrari dagokionean, hirugarren postuan dago, biztanle bakoitzeko gastu erregistratua kontuan izanik.
- Iazko gastuarekin konparatuz gero, ia % 7 hazi da Estatuko joko eta apustu ezberdinetan EAEn egindako gastua (Loteria Nazionala, Loteria Primitiboa, Bonolotoa eta Kiniela).


### BIZTANLE BAKOITZAK BATEZ BESTE JOKATUTAKO KOPURUAK (Zenbatekoak pezetatan)

		EAE	ESPANIA
<b>ONLAEK</b> gestionatutako joko publikoak	Lotería Nazionala	<b>16.693</b>	<b>14.520</b>
	Lotería Primitiboa	<b>7.070</b>	<b>6.328</b>
	Bonolotoa	<b>1.437</b>	<b>1.342</b>
	Kiniela	<b>2.023</b>	<b>2.053</b>
	<b>Guztira</b>	<b>27.211</b>	<b>24.243</b>
Joko pribatuak	Kasinoak	<b>3.820</b>	<b>4.663</b>
	Bingoak	<b>12.985</b>	<b>15.487</b>
	"B" Makina	<b>28.032</b>	<b>31.697</b>
	<b>Guztira</b>	<b>44.837</b>	<b>51.847</b>

ONCE | **EAE 5.642**  
**ESPANIA: 9.518**

**GUZTIRA ZENBAKI** | **EAE: 77.700**  
**ABSOLUTUTUAN** | **ESPANIA: 85.608**

ITURRIA: EL CORREO ESPAÑOL. 1997 URTEA



**ERREABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTE**  
**ASOCIACION ALAVESA DE JUGADORES EN REHABILITACION**

General Alava, 25 - 1º Dcha./Esk. • Tel./ Fax: 945 14 04 68 • 01005 VITORIA - GASTEIZ